

ANDOAIN

Aita Larramendi Ikastolak elkartruke programa berri bat martxan ipini du

Alemaniko BBS-Ahrweiller eskolarekin batera esperientzia abesgarria garatzen ari da. Aste honetan zehar Alemaniako ikasleak Andoainen daude

25.03.09 - MARIVI OLANO| ANDOAIN.

DV. Andoaingo Aita Larramendi Ikastolak eta Alemaniako



Aita Larramendi Ikastolako eta BBS-Ahrweiller eskolako ikasleak Donostian egon ziren.

BBS-Ahrweiller eskolek elkartruke programa berri bat ipini dute martxan. Otsailean andoaingo ikasleak Alemanian egon eta gero, oraingoan beraiek daude hemen. Ikastolak adierazi duen bezala «Duela hilabete agurtu genituen aurpegiak pasa den larunbatean ikusi genituen berriro ere. Alemanak Euskal Herrira iritsi berriak ziren, guk hara iristean eraman genuen neke berarekin. Hala ere pozgarria izan zen etxeokak bezala hartu gintuztenak Bilbon lur hartzen ikustea. Baina nekea ez zen gauean ez ateratzeko aitzakia izan. Hemengo ohitura errotuenak erakusteko sagardoarekin lagundutako afaria prestatu genien eta fandango eta arin-arin batzuk dantzatu ostean parrandarako prest..!»

Igandean berriz, bisitak egiteko ordua heldu zen. «Leitzarain bailara bisitatzeko iratzargailuak goizegi jo baitzuen aukeran. Egunpasa polita izan zen halere denontzat. Arratsaldean berriz, Realaren partidua ikustera joanez amaitu baitzen. Alabaina, txalapartaz eta dantzaz lagundutako ongi-etorria ez zen astelehen goizera arte iritsi. Ikastola guztia euren zain bazegoen ere, Donostia ikustera joan ziren (Aquariuma, Igeldo, Kontxako badia...). Eta gaurkoan, euskarako ikastaro txiki baten ostean, herri kirolei eman diegu paso».

Esperientzia abesgarria

Oraindik aste luzea dute aurretik, hainbat ekintzaz beteak: Ordiziako azoka bisitatuko dute Igartubeiti baserriarekin batera, Sagardoetxea, pintxo lehiaketa eta dastaketa ere izangodituzte, Ikastolako ikasleek osaturiko Susa talde andoaindarraren kontzertua, euskal dantza ikastaroa, Miramonera bisita eta astea ongi amaitzeko Zumeatarran afari eder bat elkar trukean parte hartu duten ikasle, guraso eta irakasle guztiekin. Ikastolak azpimarratu duenez «Esperientzia aberasgarria bezain ahaztezina izan da guztiontzat».